

PROZEDURA IREKIZ ETA PUBLIZITATE BIDEZ BEASAINGO UDALEKO ZERBITZUEN SAILERA KO OBRAKO DUMPER BATEN HORNIDURA KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA

DILIGENTZIA: Plegu hau Alkatearen 2017ko urriaren 23ko Ebazpenez onartu dela ager dadin.

Onespena
Alkatea,
Sinadura: Aitor Aldasoro Iturbe

Idazkaria,
Sinadura: Itziar Arostegi Apaolaza

LIZITAZIOAREN EZAUGARRIAK:	
Helburua	OBRAKO DUMPER BATEN HORNIDURA BEASAINGO UDALEKO ZERBITZUEN SAILERA KO
Gastuaren gehienezko muga	26.400€ + BEZ
Horniduraren gehienezko epea	30 egun
Kontratazio-prozedura	Prozedura irekia publizitatea erabiliz
Prezioen berrikuspena	Ee
Behin betiko bermea	Kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren % 5, BEZ aparte.

I.- KONTRATUAREN HELBURUA

Plegu honen arabera egiten den kontratuaren helburua Beasaingo Zerbitzuen Sailerako **3,5 TN-ko** obrako dumper bat, **hidrostatikoa, birakorra eta artikulatua** baitaratzea da, **1. eranskinaren** zehaztapen teknikoekin bat etorritz.

II.- ENTREGA-EPE ETA -LEKUA

Hornidura entregatzeko gehieneko epea **30 egun naturalekoa izango da**, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratistaren atzerapentzat hartuko da epe hori igarotzen denean, eta ez da horren jakinarazpena egiteko beharrik egongo, baldin eta indarreko legerian aitortzen diren ezinbesteko kasuetako arrazoiren baten ondorioz, eskumeneko udal organoak adierazitako epea luzatzea adosten ez badu, kasu horretan, atzerapena luzapena igaro ondotik hasiko litzateke zenbatzen.

Hornidura udal pabilioian egingo da, Beasaingo Erauskin kaleko 21. zenbakian lekutzen dena.

III.- FINANTZAKETA

Administrazioak taxututako aurrekontuaren zenbatekoa 26.400 €koa da (BEZ gabe)

Kontratuaren prezioa ordaintzeko aurtengo udal aurrekontuan kargatutako finantzaketa aurreikusten da (..... aurrekontuko partida).

IV.- ORDAINKETA MODUA

Ordainketa hornidura entregatu ondoren egingo da, aldez aurretik faktura aurkeztu eta indarreko xedapenetan ezarritako kontabilitateko izapideak egin ostean.

V.- PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspenik egingo, espedientean egiaztatzen denez.

VI.- HORNIDURAREN HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratistak kontratu honen xede den hornidura Plegu honetako II. klausulan aurreikusitako epean aurkeztu behar du derrigorrez, HARRERA AKTA formalizatuz.

Hornidura jasotzeko baldintzetan ez dagoenean, harrera-aktan adierazi beharko da berariaz eta kontratistari dagozkion jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzendu edo hornidura berria eman dezan. Zuzenketa edo ordezipena egiten ez denean, Administrazioak aukera izango du kontratua eteteko, ordaintzeko betebeharretik salbu geratuz.

Berme-epea bi urtekoa da, hornidura entregatzen denetik zenbatzen hasita, Udala harekin ados badago.

VII.- BERMEAK ERATZEA

Lehiaketaren esleipendunak behin betiko berme bat eratu beharko du, esleipenaren zenbatekoaren % 5ekoa izango dena, Balio Erantsiari buruzko Zerga aparte.

Behin betiko bermearen eraketa prozeduraren esleipena jakinarazi eta hurrengo 10 egun baliodunen barnean egiaztatu beharko da. Betekizun hori betetzen ez bada, esleipendunari egotzi ahal zaion arrazoi baten ondorioz, kontratua eten egingo da.

Bermearen itzulketa Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko 102. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo da, behin berme-epea amaitu ondoren eta esleipendunak kontratuzko betebehar guztiak bete ondoren.

VIII.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

1. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA.

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da, eta publizitatea eginda.

Esleipen-irizpidea prezio baxuenarena izango da soilik.

2. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

Kontratazio-prozedura honetan jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural nahiz juridikoek, espainiarrak zein atzerritarrek, parte har dezakete, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatuz (kaudimen-eskakizun horiek dagokion sailkapenarekin aldatuko dira hori eska daitekeen kasuetan), baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 60. artikuluan ezartzen diren kontratatzeiko debekurik ez badute.

Halaber, beren kabuz edo haiek baimendutako pertsona baten ordezkariarekin aurkez daitezke, horretarako nahiko botere emanda. Pertsona juridiko baten ordezkarietan bertako kideren batek jardungo balu, dokumentu bidez ziurtatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkaria lehen adierazitako ezgaitasun-arrazoien eraginpean egongo da, kontratatzeari dagokionez.

Halaber, aldi batez eratzen diren enpresari-elkarteek proposamenak aurkezteko aukera izango dute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 59. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Elkarketa hori osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatu beharko ditu. Horretarako, hurrengo klausuletan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, eta agiri pribatu batean sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza eta kontratuak irauten duen bitartean Administrazioaren aurrean horien guztien ordezkariak osoa izango duen pertsona edo erakundea (eskubideak erabili eta kontratutik eratortzen diren betebeharrak betetzeko nahikoa ahalmena izanik) adierazi beharko dira, Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adieraziz. Dokumentu hori elkarketa osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariak sinatu beharko dute. Kontratua aldi baterako elkarteari esleitzen bazaio, eskritura publikoan formalizatu beharko da hura.

Lizitatzailerak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartuta ere, ezingo du proposamenik luzatu, aurretik indibidualki egin badu, edo aldi baterako elkarketa bat baino gehiagoan agertzen bada. Printzipio hau hausten bada, automatikoki berak sinatutako proposamen oro ez onartutzat emango da.

Proposamenak aurkeztean Plegu honetako klausulak eta gainerako kontratuzko dokumentuak baldintzarik gabe onartzen direla ulertzen da, inolako salbuespenik gabe. Horrez gain, aurkeztutako datu guztiak zuzenak direla eta zerbitzua kontratatzeiko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela berresteko aitorpen sinatua dakar.

3. PROPOSAMENEN AURKEZPENEA.

Proposamenak udal-erregistroan aurkeztuko dira 8:30-13:30 bitartean, hamabost egun naturaleko epearen barnean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Proposamenak jasotzeko ezarritako epearen ostean aurkeztutako proposamenak ez dira onartuak izango, epea amaitu aurretik Correosen entregatu zirela egiaztatu arren. Soilik onartuak izango dira Kontratazio Organoari telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz helarazten bazaio eskaintzaren igorpen-dataren justifikazioa, postaz igorritako egun berean. Posta elektronikoz bidez iragarkia igortzean Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 80.4. artikuluan haren baliozkotasunari buruz ezartzen dena bete beharko da.

Proposamenak itxitako hiru (3) gutun-azaletan ("A", "B" "C") aurkeztuko dira. Horietako bakoitzean "PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA PUBLIZITATEAREKIN, BEASAINGO UDALEKO ZERBITZUEN SAILERAKO OBRAKO DUMPER BATEN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA" idatzita.

Gutun-azal bakoitzean proposamena aurkezten duen enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaeratan egiten duen adierazi beharko da. Guztia modu irakurgarrian, hiru gutun-azalak sinatuta egon beharko dutelarik.

Horrez gain, gutun-azal bakoitzean, dagokion edukia adierazi beharko da, hauek barneratuz:

- "A" GUTUN-AZALA: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"
- "B" GUTUN-AZALA: "EZAUGARRI TEKNIKOAK"
- "C" GUTUN-AZALA: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

"A" GUTUN-AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

"A" gutun-azalean dokumentu hauek barneratu beharko dira:

a) Enpresariaren izaera juridikoa egiaztatzeko dokumentuak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak egiaztatzeak. Izaera egiaztatutzat joko da:

a.1. Lizitatzailerak pertsona juridikoa denean, eraketa- edo moldaketa-eskritura aurkeztu beharko da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta egotearen agiria ere bai; halaber, aplikatu dakioken merkataritza-legeriaren arabera inskribapena eskatu ahal zaionean, identifikazio fiskaleko zenbakia (I.F.Z). Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasunaren egiaztapena, eraketa-eskritura edo -dokumentuaren bidez, estatutuen bidez edo fundazio-egintzaren bidez aurkeztuko litzateke. Bertan bere jardura arautzeko arauak

adierazi beharko dira, hala badagokio, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta ageri direnak.

Enpresariak Europar Batasunaren barneko Estatu kide ez espainiar bateko kide badira, kokaturik dauden Estatuaren legeriaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, bestela zinpeko aitorpen edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikagarri diren erkidegoko xedapenen arabera.

a.2. Lizitatzailleak berezko izenez jarduten badu, Nortasun Agiri Nazionala (N.A.N) edo dagokion estatuak emandako dokumentu baliokidea aurkeztu beharko da.

a.3. Proposamenak beste inoren izenean sinatzen dituztenek edo beste inoren izenean agertzen direnek, N.A.N. dokumentuaren kopia aurkeztu beharko dute, horretarako nahikoa ahalmen dutela adierazteko agiriarekin batera.

Halaber, aurrez adierazitako dokumentu eta inguruabarrak Euskal Autonomia Erkidegoaren Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko edo Estatuko Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri baten bidez egiazta daitezke, edo bestela, SPKL-ren 73. artikuluan ezartzen den sailkapenezko erkidegoko ziurtagiri baten bitartez. Kasu horretan, aipatu ziurtagiriarekin batera lizitatzaillearen aitorpen sinatua erantsi beharko da, dagokion ziurtagirian islatzen diren baldintzetan aldaketarik egon ez dela baieztatuz.

a.4. Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren (SPKL) 60. artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diolako aitorpen sinatua, laneko segurtasun eta osasun arloan arau-hauste oso larri modura zehatua ez izanaren inguruabarra berariaz barneratuko duena; hala nola, indarrean dauden xedapenek ezartzen dituen zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituelako aitorpen sinatua. Azken horiek aurkeztu beharko dira, bi horien gaineko ziurtagiria aurkeztu ezean.

a.5. E.J.Z.n, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, izena eman duelako egiaztatzea. Horretarako, alta aurkeztuz, aurtengo ekitaldiari badagokio, edo, beste kasuetan, E.J.Z.ren azkeneko ordain-agiriari dagokiona. Bietan ere, zerga horretan bajan eman ez izanari buruzko aitorpena eman beharko da (HAKLEO, 15. artikulua).

a.6. Atzerriko enpresek Espainiako edozein arlotako Epaitegi eta Auzitegietako araubideari jarraituko dietelako aitorpena aurkeztu beharko dute, kontratuaren ondorioz, zuzenean zein zeharka, sor daitezkeen arazoak konpontzeko, eta lizitatzailleari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko eginda, hala behar izanez gero.

Eskatutako dokumentazioaren originala edo haren kopia aurkez daiteke.

b) Lizitatzaillearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren eskakizunak jarraian adierazten diren bitartekoekin justifikatzen dituztenek:

b.1. KAUDIMEN EKONOMIKOA

Ez da eskatzen, kontratuaren prezioa 35.000 €tik beherakoa izategatik.

b.2. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Kontratuaren xedearekin lotuta, azken bost (5) urteetan emandako hornidura nagusien zerrenda. Zerrenda horretan horniduren zenbatekoa, datak eta haien hartzaileak (publiko zein pribatu) adierazi beharko dira.

Hartzailea sektore publikoko entitate bat denean, emandako hornidurak eskumeneko organoak egin edo igorritako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira; hartzailea subjektu pribatu bat denean, aldiz, hark egindako ziurtagiria aurkeztuko da edo, ziurtagiriri hori aurkezterik ez balego, enpresariaren adierazpena aurkeztuko da; hala badagokio, ziurtagiri horiek kontratazio organoari helaraziko dizkio zuzenean eskumeneko agintaritzak.

“B” GUTUN-AZALA: “EZAUGARRI TEKNIKOAK”

Proposatutako hornidurak **1. eranskinean zehaztutako ezaugarri guztiak betetzen dituela** egiaztatu beharko da. Horretarako, ezaugarri teknikoen katalogoa eta eskainitako dumperraren deskribapen.memoria helarazi beharko dira.

“C” GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA.

Gutun-azal horretan Proposamen Ekonomikoa bera jasoko da, jarraian adierazten den ereduarekin bat etorritz. Bertan eskaintza ekonomikoari dagozkion zenbatekoak barneratuko dira.

“ _____jaunak,
_____(e)ko biztanleak, helbidea _____(e)an duenak,
_____ telefono-zenbakiarekin eta _____NAN/IFZ
zenbakiaren jabe denak, gaitasun juridiko eta jarduteko osoa izanik, berezko
izenean (edo _____ ordezkatzuz, helbidea _____(e)an
duena, _____ telefono-zenbakiarekin eta _____IFZ
zenbakiarekin), Beasaingo Udalak PROZEDURA IREKIZ ETA PUBLIZITATE
BIDEZ BEASAINGO UDALAREN ZERBITZUAREN SAILERAKO OBRAKO
DUMPER BATEN HORNIDURAREN kontratazioa arautzeko onartutako Klausula
Tekniko eta Administratiboen Pleguaren jabe izanik, adierazten du:

3,5 Tn-ko obrako dumper hidrostático, birakor eta artikulatu baten
hornidura egiteko konpromisoa hartzen duela, prezio honetan:

.....EUROS + BEZ zergaren % 21

- Zenbateko osoa:EURO.
- Berme-epea.....urte

_____(e)n, 2017ko _____ren
_____(e)an

(Lizitatzaillearen sinadura)

4. KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio mahaia honakoak eratuko dute:

PRESIDENTEA:	Zerbitzu, Ingurumen eta Landa Sustapeneko Batzordeko
zinegotzi-ordezkaria	BATZORDEKIDEAK:
Zerbitzueta burua	
KONTU-HARTZAILEA	
IDAZKARIA:	

5. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

- a) Proposamenak aurkezteko epea igarota, Mahaiak garaiz eta formaz jasotako dokumentazioa ("A" gutun-azala) **KALIFIKATUKO** du; horretarako, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den moduan jardungo du.

Horretarako, lizitatzaillearen gaitasun eta kaudimenari buruzko oharra edo dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira. Horiek, Araudiko 22. artikuluan xedatzen denez, bost egun naturaleko epearen barnean aurkeztu beharko dira. Ohar edo informazio osagarriaren gaineko eskaera ahoz komunikatuko die mahaiak interesdunei. Era berean, Kontratazio Organoaren iragarki-oholean eta kontratatzailearen profilean iragarriko da. Modu berean egingo du Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren akats konpongarrien gaineko komunikazioa. Kasu horretan, lizitatzailleek hiru (3) egun balioduneko epea izango dute hautemandako akatsak zuzendu edo konpontzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta, hala badagokio, hautemandako akatsak eta ez-aipatzeak konpondu ostean, mahaiak plegu honetako 4. klausulan zehaztutako hautaketa-irizpidetara egokitzen diren enpresak hautatuko ditu, eta lizitazioan onartutako eta ukatutako enpresak zein diren jakinaraziko du, ukatzearen arrazoiak ere emanez.

- b) Eskaintzak **EBALUATZEKO** plegu honetako VIII.1. atalean ezarritako esleipen-irizpideak hartuko dira oinarri modura.
- c) Azkenik, kontratazio mahaia aurkeztutako proposamenei dagozkien balioespen-irizpideak aplikatu osteko **EMAITZAK**, Akta, jasotako dokumentazioa, esleipen-proposamena eta egoki ikusten dituen oharra helaraziko dizkio kontratazio organoari. Azken horrek prozedura bertan jo ahal izango du, betiere, arrazoiak emanez.

6. ESLEIPENA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK.

Kontratazio Organoak eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerak deituko du, hamar egun balioduneko epearen barnean (eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita) hauek justifikatzeko dokumentazioa aurkez dezan:

- ✍ Bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak betetzen dituela, edo bestela Kontratazio Organoari horri buruzko egiaztapena zuzenean egiteko baimena emango dio.
- ✍ Ekonomia jardueren gaineko zergen alta egoeran izatea.
- ✍ Egokia den behin betiko bermea eratu izana, esleipenaren zenbatekoaren % 5ari dagokiona, Balio Erantsiari buruzko Zerga aparte.

Dagozkion ziurtagiriak baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliz igorri ahal izango dira.

Eskatutakoa adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzailerak bere eskaintza baztertu duela ulertuko da. Kasu horretan hurrengo lizitatzailerari eskatuko zaio dokumentazio bera aurkez dezala, eskaintzen arabera sailkapeneko hurrenkerari jarraituz.

Kontratazio Organoak dokumentazioa jaso ostean bost egun balioduneko epea izango du kontratua esleitzeko. Pleguan adierazten diren irizpideen arabera onargarriak diren eskaintza edo proposamenak daudenean, ezingo da lizitazioa mortutzat jo.

Esleipena arrazoitua izan beharko da, hautagai edo lizitatzailerari jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Edozein kasutan, esleipena egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak egiteko epea irekitzen den egunetik hasita.

IX.- IZAERA, ZUZENBIDE ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

IZAERA ETA ZUZENBIDE ARAUBIDEA.

Plegu honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du eta bertan adierazten ez den guztirako Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginean (azaroaren 14eko 3/2011 Errege Dekretu Legea) xedatutakoaren eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoaren nahiz maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren arabera, eta hala badagokio, Herri Administrazioen kontratuetan aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera jardungo da.

Osagarri gisa, Administrazio-zuzenbideko arau orokorrak hartuko dira aintzat eta, soilik halakorik izan ezean, Zuzenbide Pribatukoak.

Administraziozko Klausura Bereziaren Plegu honen eta espedienteari atxikitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik gertatuko balitz, Plegu honetan ezarritakoari emango zaio lehentasuna.

JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratuaren aplikazioan edo interpretazioan, gauzapenean, aldaketan, betetzean edo eteteen sor daitezkeen auzibidezko kontuak Beasaingo Udaleko eskumeneko organoek ebatziko dituzte, aldez aurretik pertsona edo enpresa kontratistarekin elkartu ostean. Organo horren akordio eta ebazpenak berehala betearaztekoak izango dira.

Akordio eta ebazpen horiek aurkaratzeko eskumeneko jurisdikzioa administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da beti. Dena den, aldean artean auzibide horiek arbitraiara eramatea erabaki daiteke, indarreko legedian ezarritakoaren arabera.

X. KONTRATUA GAUZATZEA

Ondareak plegu honetan ezarritako denboran eta lekuan entregatu beharko dira, baldintza teknikoekin eta klausula administratiboekin bat etorritik.

Kontratua kontratistaren arrisku eta kontura gauzatuko da eta Administrazioari entregatu aurretik ondaretan galera, matxura edo kalteak izaten badira, kontratistak ez du arrazoi horien ondoriozko kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, haiek jasotzean atzerapenik gertatu ez bada.

Kontratu hau Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren baitan garatuko da. Hala, Administrazioak eskumen horiek idatziz nahiz ahoz gauzatuko ditu.

XI. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratistak beregain hartuko ditu, besteak beste, betebeharrak hauek:

- **Hornitzeko dumperraren identifikazio-plakan fabrikazio-data bat agertu beharko da, 2017 baino lehenagokoa izango ez dena.**
- **Dumperra behin hura legeztatzeak izapideak (matrikulazioa) bete ostean entregatuko da.**
- Esleipendunak kontratatutako ibilgailua aurreikusitako datan entregatzen ez badu, ibilgailu berdin edo antzeko bat jarri beharko du Beasaingo Udalentzat erabilgarri. Halakorik erabilgarri ez badago, Beasaingo Udalak ibilgailu bat alokatzeak aukera izango du, eta haren kostua esleipendunari kargaraziko zaio.
- Kontratua kontratistaren arrisku eta kontura gauzatuko da.

- Hornidura gauzatzen den bitartean edo hura garatzeko beharrezkoak diren eragiketetan zehar hala Beasaingo Udalari nola hirugarrenei eragindako kalte eta galeren gaineko ardura hartzea, baldin eta kalte horiek Beasaingo Udalaren idatzizko Agindu baten ondorioz gertatzen badira berehala eta zuzenean.

XII. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA

Zeharo debekaturik dago hura hirugarrenei lagatzea.

1. ERANSKINA

PROZEDURA IREKIZ ETA PUBLIZITATE BIDEZ BEASAINGO UDALEKO ZERBITZUEN SAILERA KO OBRAKO DUMPER BATEN HORNIDURARAKO KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA

1. DUMPER MOTA

Obrako Dumperra, 3,5 Tn-koa, hidrostatikoa, birakorra eta artikulatua.

2. OBRAKO DUMPERRAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

- | | |
|--|--|
| 1. Ahalmenak | Karga erabilgarria 3.500 kg
Ur karga 1.100 litro |
| 2. Motorra
zuzenean | Diesela, urez hoztutako 4 zilindroren bidezko injezio

Potentzia garbia 33,4kW /45 CV gehienez |
| 3. Transmisioa | Hidrostatikoa 4 gurpiletan, 2 abiadurekin, altu eta baxua zein
aurrera/atzera
Martxa motela aktibatua balaztaren pedala lehenengoz sakatzear
Abiadura altua 23 km/ordukoa gehienez eta 25 km/ordura iritsi
gabe |
| 4. Balaztak | Disko anitzeko balazta-sistema olio-bainu eraginkorraz
lau gurpiletan.
Higaduraren doikuntza automatikoa. |
| 5. Pisua eta Dimentsioak | Hutsean 2.600 kg gutxienez
Zabalera osoa 1770 mm gehienez
Biraketa-diametroa 8 m gehienez |
| 6. Ekipamendua
ispiluak, alarma

irisgarria, esku-frenoa,
errepidean | Segurtasun-arku tolesgarria, argi biragarria, atzerako
atzera martxa, segurtasun-gerrikoa, eserlekua
malgukiduna doigarria eta bi aldeetatik
klaxona, kontrol hidraulikoak eskura,
zirkulatzeko argiak, atoirako kakoa. |
| 7. Besterik | CE marka |